Hemi Aldizkaria otamotz

2002ko otsaila 74. alea



ZORIONAK GOIERRI!

IRITZIZ-IRITZI: GORKA OJANGUREN
ELKARRIZKETAK: GORKA HERMOSA ETA IÑAKI SASIETA
BOTEPRONTOAN: IÑAKI LARRAÑAGA



1927 geroztik IRAKASTEN eta HEZITZEN

LA SALLE - LEGAZPI ikastetxea

Iñigo Loiola kalea, 7, ☎ 943 72 50 56 - 943 72 15 14, fax 943 72 56 73, Zumarraga
E-mail: leglasalleiz@planalfa.es

Matrikulazio epea: otsailaren 18tik martxoaren 1era

10 urte / años

SASIETA MANKOMUNITATEA

Eskerrik asko

Eguberrietako lehiaketan parte hartu duzuen guztioi 1.000 lagun baino gehiago!!

Hauek dira aurtengo irabazleak.
Zorionak zuei eta zorte gehiago besteoi hurrengo urterako

Nekazaritza-turismoko baserri batean asteburuko egonaldia:

Jesusa Alustiza (Segura)
Isabel Mujika (Beasain)
Justino Blazquez (Ordizia)

Talasoterapiako zirkuitua:

Ane Barcenilla (Beasain)
Puri Oiarbide (Segura)
Jose Pedro Janeiro (Zumarraga)
Imelda Martinez (Zumarraga)
Irati Aldanondo (Lazkao)
Sonia Araguzo (Legazpi)
Itziar Olano (Legorreta)
Leire Soto (Ordizia)
Maite Rubio (Ordizia)
Joseba Arruabarrena (Zaldibia)

Fedemaile publikoaren aurrean egindako zozketa.

Duela 50 urte inguru, Domund egunean ateratako argazkia.
Ezkerretik eskubira: Mª Angeles Mendizabal, Begoña Albisua, Miren Madina, Mª Josefa Landa eta Irene Mari Dorronsoro.

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

Iparragirre Sariak 2001



Urtarrilaren 11an 2001eko Iparragirre Sarien banaketa egin zen Zumarragako udaletxeko areto nagusian. Bertan, Felix Maraña eta Jose Luis Padron idazleak eta epaimahaikideak izan ziren. Biek aurkeztutako lanen maila goraipatu zuten.

Euskarazko narratiba sailean, Zigor Etxaniz oriotarra izan da irabazle, "Treguarik gabe" ipuinarekin. Euskarazko poesia sailean, berriz, Maria Ines Goikoetxea donostiarra izan da irabazlea, "Berdea eta grixa gaueztaturik itsasoaren ardoran" lanarekin.

Gaztelaniazko lanei dagokionez, narratiba alorrean, Manutel Terriñ albazetearra izan da irabazlea. Poesia lanetan, Sergio Oiarzabal bilbotarrra izan da irabazlea, "Por mucho que quiera el misterio" lanarekin.

Lau irabazleek 100.000 pezeta, Iparragirreren estatua txiki bat eta euren lanak biltzen dituzten liburuaren 20 ale jaso zituzten.

Santa Lutzitako Argazki Rallyko irabazleak

Abendu bukaeran Santa Lutzitako Argazki Rallyko sari banaketa egin zen kultur etxean. Bilduma onenaren saria Javier Quiros beasaindarrak irabazi zuen, bigarren saria Mikel Laiglesiarentzat izan zen, hirugarrena Ruben Sanchezentzat eta laugarrena Luis Llavorirentzat. Herriko bildumarik onenaren saria Josu Perezek irabazi zuen eta herriko bigarren bilduma onenaren saria Carlos Mediavillak. Haurren mailan, lehen saria Oihane Mediavillarentzat izan zen, bigarrena Haritz Zalduarentzat eta hirugarrena Maria Barrasarentzat.

Joan den igandean, Zelai-Arizti aretoan, argazki rallyan parte hartu zuten argazkilariek ateratako diapositibak ikusteko aukera izan zen. Joaterik izan ez bazenuten, iganderarte, Juan de Lizarazu aretoan, argazki rallyan atera ziren argazki onenak ikusteko aukera duzue.



Zinegotzi berriak Zumarragan

Julian Arin (EA-EAJ) eta Alberto Bilbao (Batasuna) Zumarragako Udaleko zinegotzi berriak ditugu. Julianek eta Albertok Usua Buscak eta Montse Tornerrek utzitako karguak beteko dituzte.

"Zubieta XXI" Itarte Etxean izan da

Urtarrilaren 25etik otsailaren 3ra, Realak antolatutako "Zubieta XXI" erakusketa ikusgai izan da Itarte Etxean. Inaugurazio ekitaldian, Aitor Gabilondo alkatearekin batera, Xabier Bengoetxea (Realeko jokalari ohia eta egun lehendakariordea), Alberto Alejandro (Realeko jokalari zumarratarra) eta Mikel Etxeberria, Francis Tamayo eta Joaquin Berberia (kontseilariak) izan ziren.

Erakusketa honetako paneletan, jada abian den "Zubieta XXI" egitasmoa zertan datzan ikusteko aukera izan da. Realak, egitasmo honen bidez, Zubieta instalakuntza eta teknologia modernoenak izango dituen futbol eskola bilakatu nahi du. Ea bertan futbolean ikasten arituko diren gazteak Lehen Mailan ikusteko aukera dugun!

MASTER HEZKOR
Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!
Prezio eta modeloetan aukera aparta
Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA

Xarmanki Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona
ARTURO
Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU
OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA

GUREA
Iturgintza
Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...
Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Mairiren lokal berriaren inaugurazioa

Urtarrilaren 29an Mairiren lokal berriaren inaugurazioa izan zen. Bertan, Mairi Emakumeen Elkarteko bazkideekin batera, Aitor Gabilondo eta Pello Gonzalez alkateak eta Emakundeko zuzendaria den Txaro Arteaga izan ziren.

Mairen lokal berria Ederrena Pilotalekuko frontisaren atzean dago, lehen solairuan. Orainarte, Mairiko emakumeak kultur etxean biltzen ziren. Baina, kultur etxeko aretoa beste talde batzuekin partekatzen zutenez, arratsaldeko bostak alderako libre utzi beharra zuten. Emakumeen elkarteko bazkideak aspalditik zebiltzan lokal berri hau lortu nahian eta, azkenean, lortu dute. Egoitza handi honetan, ekintza ezberdinak aldiberean burutzeko aukera izango dute.

Haurrentzako zinea euskaraz

Aurten ere, Zintzo-Mintzok haurrentzako euskarazko zine emanaldiak antolatu ditu. Lehenengo emanaldia igande honetan izango da eta "Printzesa zisnea" filma ikusteko aukera izango duzue. Ondorengo emanaldiak hauek izango dira: otsailaren 17an "Periko eta Benjamin untxien ipuina", otsailaren 24an "Jack Amazonasko errege", martxoaren 10ean "Txigor animaliak salbatzera", martxoaren 17an "Ziegak eta herensugea" eta martxoaren 24an "Gezi urdina". Saioak arratsaldeko 4:30etan izango dira Pagoeta antzokian. Saio bakitzaren prezioa euro batekoa izango da.

Konturatuko zinetenez, martxoaren 3an ez da zine emanaldirik izango. Izan ere, igande horretan, arratsaldeko 5:30etan, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira Ederrena Pilotalekuan.

Itsaski zozketa

Argazkian bere alaba Mirenekin ikusten duzuen Mari Jose Elgarrestak irabazi zuen Zintzo-Mintzok hilero antolatzen duen itsaski zozketa abenduan. Argazkian biak bakarrik ageri badira ere, norbait gehiagoren laguntza beharko zuten itsaski pila hori jateko!

Gipuzkoako aurrekontua

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu oraindik formalki aurkeztu 2002. urterako aurrekontuak. Indarrean dagoen araudiaren arabera urriaren 31a baino lehen aurkeztu behar zituzten aurrekontuak. Atzerapen honek ezinezkoa egiten du aurrekontuak garaiz onartzea eta 2002 urtea ere aurrekonturik gabe hasi beharko du Gipuzkoak. Aurten ordea, derrigorrezkoa du aurkeztea eta aurrera ateratzea. Eta PNV-EA koalizioak 19 batzarkiderekin gutxiengoan jarraitzen du; derrigorrezkoa du, beraz, beste norbaiti begira jartzea.

PNV-EA-k elkarrizketarako omen duten borondate zabalaren berri ematen digute eguna joan eta eguna etorri. Elkarrizketa ordea, PP eta PSErekin soilik. Batasunarekin ez. Sudupek esan berri du, inolaz ere ez dutela Batasunarekin (14 batzarkiderekin Gipuzkoako BBNNetako lehen indarra) elkarrizketarik izango. Espainolak dira Gipuzkoako PNV eta EAren begietan dauden aukera bakarrak.PNV eta EA, PSOE-ren bila doaz, bere eguneroko praktikan, markoaren gainditzearen aldeko apustua egiten dugunon bideari uko eginez eta, Euskal Herriak duen autodeterminazio eskubideari bizkarra emanez.

1998ko irailean ireki zen fase hartan, oso nabaria izan zen, PNV eta EAk izan zuten jarrera. Lehenengo, Euskal Herritarroki alkatetzak eta Foru Aldundia kentzea beste helbururik ez zuen halabeharrezko koalizioa sortu zuten. Eta ondoren, ezker abertzaleari Foru Aldundietarako bidea itxi zioten.Denboraren jardunak argi utzi digu, Gipuzkoako PNVko buruzagi hauen helburua ez zela Lizarra-Garaziko akordioak eta abertzaleen arteko elkarlana bultzatzea. Ez zela marko hau gainditu eta Euskal Herriaren eskubideen errespetuzko egoera berri baten aurrean bakea lortzea, bakoitzak bere besaulkiari eusteko ahalegin guztiak egitea baizik. Horretarako behar du PNVk, PSOE.

Udalbiltza bera trukerako txanpon gisa erabiltzen du PNVk. Aurrekontuak Ezker Abertzalearekin adostu behar direnean erakunde nazionalari garrantzia ematen zaio. Baina aurrekontuak PSErekin eztabaidatzeko enbarazua egiten duenez, erakunde nazionala bazterrean uzten da, esku hutsik. Horrela jokatzen du PNVk Udalbiltzarekin.

Guztiz onartua dago Beasain-Durango ardatza bai Euskal Herri mailan, bai Gipuzkoa mailan, bai Goierri, Urola-Garaia eta Deba bailara mailan oinarrizko azpiegitura dela. Baina errealitatean, Beasain-Durango errepide ardatza garatzea soilik Batasuna taldearen erronka dela dirudi.

EH taldeak 2000. urteko Foru Aldundiko aurrekontuetan 7.000 milioi txertatu zituen Beasain-Durango ardatza garatzeko negoziaketa luze eta neketsuen ondoren. Hortik aurrera, bera da talde bakarra lan hauen epeak jarraitzen dituena. Egia esan behar bada, gure jarraipenen ondorioak nahiko ezkorrak dira eta ezin gorde gure harridura eta haserre sensazioa. Horrela, Gipuzkoako Batasunako Batzar Nagusietako taldeak azken hilabetean Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuari Beasain-Durangoren egoerari buruz luzatu dion galderaren ondorioz jakin izan dugu urtebetean Gipuzkoako Foru Aldundiak gutxienez 9 hilabete atzeratu duela Ormaiztegi-Zumarraga zatiaren eraikuntza, inolako azalpen publikorik gabe.

Egunetik egunera garbiago azaltzen da nola PNV eta EAk zuzentzen duten Foru Aldundiak ez duen apusturik egiten Beasain-Durangoren alde, eta honekin batera gure eskualdeen garapenaren alde. Horretarako, epeak etengabe atzeratzen ditu eta Zumarraga-Bergara bi karriletako errepide mugatu bat proiektatu du. Batasunaren iritziz Zumarraga-Bergararen epeak aurreratu behar dira eta 2002. urteko aurrekontuetan horren alde apustu egin behar da.

Batasunak oso argi dauka 2002. urterako zein aurrekontu nahi dugun Gipuzkoarentzat: Gipuzkoako eragileen zuzenean parte hartuz eta iritzia emanez eginiko aurrekontua. Gipuzkoan premia eta behar handienak dituztenei (helduei, langabetuei, gazteei, etorkinei ...) erraztasun gehiago ematen dizkien aurrekontua. Udalbiltzari, euskal kulturari, euskarari lehentasuna emango dien aurrekontua. Azpiegiturak, Euskal Herriko lurraldearen antolaketaren baitan garatuko dituen aurrekontua. Madrilek lapurtzen digun eta gurea den ondasunaren defentsa egingo duen aurrekontua.

Ardatz hauetan eginiko aurrekontuak balioko du eskubideak, askatasuna eta bakearen bidean aurrera jotzeko. Gainontzeko bideak, atzera begirako errezeta zahar eta baliogabeak besterik ez dira.

Joxean Alustiza
Batasunako batzarkidea

Ferretería BRAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIAK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Gorka Ojanguren

Gara-penaz

Demagun kaletik zoazela eta Lambur batekin topo egiten duzula. Lambur-ak Mongoliako lautadetan bizi diren tribu nomada bat dira. Euren animalien bazkarako larreen bila ehundaka kilometro egiten dituzte oinez eta bizilekuz aldatuz gero, beti alboan eramaten dute daukatena. Kuriositatez galdeiozu zein iritzi duen "behi eroen" gaitzaz. Erantzungo dizu bereak elur-oreinak direla -hauetatik ateratzen duela jana, esnea eta bizitzeko behar duen guztia-, ez duela sekula ikusi zuk aipatu diozun animalia hori, baina, aukera izango balu, pozik probatuko lukeela bere haragia, baita erotuta badago ere.

Esaiouzu Erronkariko haranean bizitza osoa bakarrik eta "gasna" eginez igaro duen artzaiari, Iruñeako eskola batean, lau umeri minbizia atzeman dietela telefono mugikorren antenek sortzen dituzten uhinen ondorioz. Ez dizu tutik ere ulertuko, baina, pentsatuko burutik jota zaudela. Zuk esango diozu baietz, egia dela eta hemen ez dagoela kamera ezkuturik. Berak, izuturik begiratuko zaitu eta Asterix eta Obelixen marrazkietako erromatarrak baino pitzatuagoa zaudela buruzatuko zaio.

Esaiozu 25 urte kartzelan egon den presoari, lehen Euskal Herria zena orain "Erkidego Autonomoa" deitzen dutela. Esaiozu, lehen zazpi zirenak gaur egun hiru direla eta Barrionuevo eta Corcuera izeneko tipo batzuk bera baino beranduago sartu eta bera baino garaizago askatu dituztela. Orduan, berak erantzungo dizu orain zoriontsua dela, egoera berrira ohitzen ari dela eta gustatuko litzaiokela noizbait herrira itzuli eta lagunak ikustea, lehengoak eta betikoak, euren bizitza zertan den jakiteko.

Esaiouzu HIESaz kutsatuta bere buruaz beste egin duen n-garren langabetuari, gaur egun, lagunekin egoteko ez dagoela etxetik irten beharrik eta interneten nabigatzeak edozeinekin konektatuta egoteko aukera ematen dizula. Seguruenik, berak ez dizu deus ere esango. Zuk, buelta eman eta etxeruntz abiatzean, pentsatuko duzu bere ixiltasuna erantzun nahikoa badela.

Esaiezu eguneroko erronda txikiteoan egiten duten lagun horiei, euroa dela eta, borobiltzeko edo, lehen 45 pezeta balio zuen ardo korrienteak orain 50 zentimo balio duela. Esaiezu, esaiezu bai, eta ikusiko duzu.

Esaiozu 70 urte Arantzazuko santutegian pasatu dituen frantziskotarrari, euskararen erabilera jaisten ari dela herrietan eta ez dakit nongo antropologo batek dioenez, urte batzuk barru desagertu ere egin daitekeela. Berak esango dizu baietz, baina mesedez kanpoan ez gelditzeko, hemen hotz handia egiten duela eta. Barrura sartu eta salda beroa eta haragi egosia eskainiko dizu. Hizketan hasi eta gizon horrekin denbora luzez jardun zintezkeela irudituko zaizu. Orduan, bat-batean, dena ulertuko duzu. Eta egia da bai, barruan beti ere kanpoan baino hobeto egoten dela. Bihotzez hamaiketakoa eskertu eta birritan promes egingo diozu beste behin ere itzuliko zarela. Gero, fraidea agurtuko duzu eta leku hori hain gaizki ez dagoela pentsatuko duzu.

Esaidazu neri zer arraio egiten dudan horrelako gauza absurdoak orri honetan idazten. Eta nik erantzungo dizut, gaur igandea dela, euria ari duela eta kaleak asfaltozko desertuak direla nire begietan.

BILINTX
LIBURUDENDA
EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.
-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224
Fax: 422363 20003 DONOSTIA
-Fermín Calbetón, 30
Telf. 422696 20003 DONOSTIA
-República Argentina, 4 Telf. 626817
Fax: 626817 20300 IRUN
-Arostegieta, z/g. Telf. 673533
Fax:673500 20400 TOLOSA
-Ibargarai, 12 Telf. 764050
Fax: 764050 20570 BERGARA

Ondo ari al zara moldatzen txanpon berriarekin?

Idoia Barbarin
(Ezkurra Taberna)

Lehen egunetan nahiko gaizki ibili ginen, batez ere Errege-gauean. Jada ohitu gara, baina ea behingoz kutxa erregistratzaile berria ekartzen diguten!

Ricardo Ruiz

Jada ohitu naiz, ze erremedio! Pezetak aspaldi xahutu nituen eta euroekin ondo ari naiz moldatzen. Dena den, prezioak dezente igo direla uste dut.



Jose Ramon Sanz

Pixka bat kosta zitzaidan txanpon berrira ohitzea, baina jada ondo moldatzen naiz. Pezeta guztiak azkar xahutu nituen, hori baita txanpon berrira ohitzeko modurik onena.

Itziar Abaigar

Ondo moldatzen naiz txanpon berriarekin, nahiz eta oraindik pezetak era baditudan. Egunero erosten ditudan gauzekin ez dut arazorik, baina besteekin zailagoa da asko edo gutxi ordaintzen ari zaren jakitea.

Aintzane Arizmendiarrieta

Ondo moldatzen naiz, nahiz eta txanpon bakoitza zenbatekoa den ez dudan ondo ikasi oraindik. Senarrak Kutxan lan egiten du eta lehenengo egunetan lanez lepo ibili ziren. Etxean ez zuen euroaz ezer entzun nahi!



Luis Mari Etxezarreta
(Ciclos Etxea)

Euroak ez dit arazorik eman, kontuak polikiago egin beharra soilik. Hori bai, askotan ez dakizu zenbat ordaintzen ari zaren. Tabernariak gainontzeko dendariak baino okerrago ibiliko ziren.

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
fundazioa
fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Gorka Hermosa, musika ezberc

Baziren urte batzuk Gorka Hermosa akordeoilari urretxuarraren berririk ez genuela, azken urteotan Valladoliden bizi baita. Bertan, musika irakasten eta informatika ikasten ari da. Duela aste batzuk, bere egitasmo baten berri ematen zuen posta elektronikoa jaso genuen. Honen arabera, Gorkak IlunaBar izeneko pop-rock talde bat sortu berri du eta aurkezpen maketa grabatu dute jada. Talde honetan, Gorkarekin batera, sona handiko beste musikari batzuk daude: Celtas Cortosekin eta Enrique Urquijorekin lan egin duen Jesus Prieto "Piti" gitarrajolea, Diego Martin bateriajolea, Los Rebeldes eta Tennessee taldeetan aritu den Cesar Diez baxujolea eta Hemendik At taldeko abeslariak diren Edurne Arizu eta Stella Berzal.

Azkenaldian saltsa askotan sartua zaudela jakin dugu...

"Concurso Nacional de Jovenes Intérpretes" irabazteak ate asko zabaldu zizkidan. Honi esker, 40 kontzertu eman ditut, tartean RTVEren orkestrarekin kontzertu bat. Bestalde, disko batean 10 minutu grabatu ditut eta datorren urtean disko oso bat grabatu behar dut. Bestalde, duela gutxi, TVErentzat ordu erdiko emanaldia grabatu dut. Sari hura irabazteak, musika munduan sartzeko aukera eskaini zidan eta honi esker, musika klasikotik kanpo dauden proiektuetan parte hartu dut. Egun, bost alor ezberdinetan nabil: Pop-rocka IlunaBarrekin, folk-fusion Valloberarekin, folk tradizionala Manuel Lunarekin, tango disko bat grabatu behar dut hari-orkestra batekin eta bakarlari bezala musika klasikoa lantzen ari naiz. Valloberari esker, talde baten funtzionamendua ezagutzeko aukera izan dut: konponketak nola egin, managerrak, kontzertuak nola lortu, disketxeekin harremana... Hau guztia oso baliagarria izan zait IlunaBar sortzeko.

Nolatan sortu duzu IlunaBar?

Udan, Edurneri, Hemendik Ateko abeslariari, eta niri, IlunaBar dena sortzea bururatu zitzaigun. "Piti" gitarrajolea ezagutu nuen eta gure proposamena gustatu zitzaionez, bere estudioan grabatzea eta berak grabaketan parte hartzea eskaini zigun. Lau kanta grabatu genituen eta abenduan, "Arrasateko Akordeoi Lehiaketan", jendaurreko aurkezpena egin genuen. Bertan, Migel Gorostizak gure managerra izatea eskaini zigun eta baiezkoa eman genion. Ordutik, gure lana ezagutzera emateko lan handia egiten ari da: komunikabide ezberdinekin harremanetan jarri da, diskoa grabatzeko lan egiten ari da... Egia esan, managerra ia taldeko bat da. Izan ere, musikariok ez gaude alor horretan adituak eta bere lana oso garrantzitsua da taldearentzat.

Zer da IlunaBar?

Maketa ni neu gogobetetzeko grabatu nuen: nahi nuen musika estiloan idatzitako abestiak, nahi nuen musikoekin grabatzeko. Arrasaten jotzeko aukera sortu zenean, harrituta gelditu nintzen. Proiektu pertsonala zena aldatzen ari da: manager batekin lanean hasi gara, diskoa grabatzeaz hitz egiten ari da, komunikabideekin elkarrizketak... Ni oso lotsatuta nago. Polita da zuk sortutako zer edo zerk horrenbesteko ikusmina sortzea, baina beldur pixka bat ere ematen du. Izan ere, nire kapritxoa zen eta jada ez dela nirea bakarrik somatzen dut. Semea beste batzuen eskutan uzten ari naizenaren sentsazioa dut. Sentsazio hau hilabete batzutan pasatuko zaidala uste dut.

"IlunaBar pop-rock taldearen maketa ni neu gogobetetzeko grabatu dut"

Letrak ere zuk idatzi al dituzu?

Gehienak bai. Batez ere nire barne kontradikzioak, nire kontuak, gazte baten eguneroko bizitzaren kontuak... islatu ditut. Gaiak zeharka ikutu ditut, egoerak gainetik azaltzea atsegin baitut bakoitzak bere zentzua eta esanahia eman diezaien. Egitasmo honi sekulako ilusioz ekin nion eta abesti asko idatzi nituen oso denbora gutxian. Zer edo zer grabatzen badugu edo kontzertuak ematen baditugu, abesti hauen guztien arteko aukeraketa egin ahal izango dut. Kantitatea dagoenean errazagoa da kalitatea topatzea.



linetako akordeoilaria

Pop-rocka lantzen duzun lehenengo aldia al da?

Duela urte batzuk ere, herriko lagun batzuek eta nik, antzeko talde bat sortu genuen. Oso gustura aritzen ginen, gehiegi, eta beharbada horregatik taldeak ez zuen aurrera egin. Bestalde, musika klasikoaren alorrean abestiak idatzi izan ditut, baina IlunaBar taldearentzat idatzi ditudanak dira pop-rock kutsuko lehenengoak. Musika klasikorako dena oso zehatz idatzi behar duzu. Beste estilo honetarako, berriz, kontzeptua buruan duzu eta gainontzeko musikariei zer nahi duzun azaldu behar diezu. Honelako musiko onak zure esanetara izatea oso gauza polita da. Zer nahi duzun azaltzen diezu eta berehala egiten dute.

"Taldean aritu ondoren, bakarka jotzea geroz eta gutxiago atsegin dut"

Ez al zizun errespetua ematen maila horretako jendea zure esanetara izateak?

Errespetua ematen zidan, baina horretarako ez naiz asko lotsatzen. Argi nuen zer nahi nuen eta nola nahi nuen. Baina, nik nahi dudanetik azkenean egiten denera alde handia dago. Izan ere, musikoek euren aldetik asko jarri dute eta niri bakoitzak bere ideiak azaltzea gustatzen zait. Horretan oso irekia naiz: bakoitzak bere ekarpena eskainiz gero, abestia asko aberasten da. Nire ikuspegiari gainontzekoena batzea oso positiboa da. Jendeari bere proposamenak azaltzen uzten ez badiozu, abestia kaltetua irtetzen da.

Danok ere nahiko lanpetuta zabiltzate, ez al duzue arazorik izango zuzenean aritzeko?

Hemendik At taldea orain atseden hartzen ari da, baina Cesar baxujolea eta Diego bateriajolea oso lanpetuta dabiltz. Biak estudio musikariak dira eta ia astero talde ezberdinekin diskoak grabatzen dituzte. Hau arazo bat da, baina taldea sortua zenean bagenuen honen berri. Zuzenean Edurne abeslaria, Piti gitarrajolea eta ni gara ezinbestekoak. Besteak ahal duten guztitan etorriko dira, baina ezin badute beste norbaitek etorri beharko du. Normalean, profesionalek ordezkoak izaten dituzte eta beraiei deituko diete.

Urretxun taldearen aurkezpena egiteko asmoa omen duzue...

Miguelek asmo hori zuen, baina ez dakit kontua nola dagoen. Urretxun jotzea asko gustatuko litzaidake, musika klasikoa ere oso gutxitan jo baitut herrian. Lagunei maketa eman diet entzun dezaten eta, esan dutenez, gustatu zaie. Gehienek esan dutena da, bertan musiko onek parte hartzen dutela nabaritzen dela.

Akordeoia honelako talde baten ardatza izatea nahiko gauza berritzailea iruditzen zait...

Bai eta ez. Akordeoi batekin ez da askotan estilo honetako zer edo zer egin. Baina, Euskal Herrian trikitixarekin oso gauza ezberdinak egin dira. Trikitixa eta akordeoia soinu ezberdina duten bi musika tresna diren arren, IlunaBarren erabiltzen dudan akordeoiak trikitixaren antzeko soinua du. Nire asmoa ez zen berritzailea izango zen zer edo zer egitea, eta hala bada, jendeak esan beharko du. Dena den, akordoilariek bide berriak jorratu ditzaketela ikusteko balio badu, poztuko nintzateke.

Bakarka aritzeari utzi behar al diozu?

Akordeoilariok oso mundu itxia dugu eta askotan ez dugu harreman handirik beste musikariekin. "Concurso Nacional de Jovenes Intérpretes" irabazteari esker, musikari asko ezagutu ditut eta beraien munduan sartzeko aukera izan dut: orkestra askorekin jotzeko aukera izan dut, Valloberakoekin jotzen dut eta IlunaBar aurrera ateratzeko aukera eskaini dit. Bakarka jotzea geroz eta gutxiago atsegin dut. Oso musikari onekin jotzen ohitu naiz eta bakarka aritzea nahiko tristea iruditzen zait. Bestalde, musika klasikoa jotzea zailagoa da, detaileak gehiago landu behar baitira. Beste estiloetan aritzea xamurragoa. da: sentsazioekin funtzionatzen dute eta nota bat gaizki jotzeak ez du horrenbesteko garrantzirik.

Montajes e Instalaciones Electricas HERCE Elektrogintzan, M. E.
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa
Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU

TABERNA
Iturreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak
Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga
Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu
Kale nagusia,5
☎ 73 04 19
Legazpi
* ZURE ESTUDIOA *

URKI
liburudenda
Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA

"Herritarrei bihotzez eskertu nahi diegu adierazitako elkartasuna"

Abenduaren 17an, Polizia Nazionalak Urretxu eta Zumarragako hainbat etxebizitza eta lokal miatu zituen, ihes egindako Ainhoa Barbarin, Ismael Berasategi eta Xabier Zabalo herritarrak ETAko kide legalak direla eta talde ibiltaria osatzen dutela zabaldu zuen eta zazpi herritar atxilotu zituen. Hauei, ustezko hiru ETAko kideei laguntzea leporatu zien. Joan zen ostegunean, frantziar poliziak Xabier Zabalo eta Ainhoa Barbarin atxilotu zituen.

Abenduaren 17tik gaurdaino igaro den hilabete eta erdian, era batera edo bestera, polizia operazio haren ondorio diren gertakari ugari eman dira: Herritar ugari mobilizatu ziren atxilotuen errugabetasuna eta hauen askatasuna aldarrikatzeko, atxilotuak askatu zituzten, Zumarragan osoko bilkura istilutsua izan zen, EA-EAJko Usua Busca Zumarragako zinegotziak dimititu zuen, Usuak zenbait komunikabidek bere dimisioaren benetako arrazoiak argitzeko agiri bat plazaratu zuen, Batasunak bere iritzia azaltzeko prentsaurrekoa eskaini zuen, EA-EAJk, beste horrenbeste egiteko, idatzi bat banatu zuen etxe guztietan...

Hauen guztien berri lehenago ere baduzuenez, azken hilabete eta erdian, euren zoritxarrerako, protagonistak izan diren atxilotuekin eta Usua Buscarekin hitz egiteko asmoa genuen. Usua Buscak ez du orainarte komunikabideekin hitz egin eta, gure borondate ona eskertu zigun arren, eskaintzari muzin egin zion.

Abenduan atxilotu zituzten Igor Urrestarazurekin, Asier Aldamarekin eta Miren Josune Begiristainekin izan gara, egun haietan bizitakoaz hitz egiten.

Ba al zenuten Polizia atzetik zenutenaren susmorik?

Ez, ez nuen ezer arrarorik somatu atxilotu gintuzten momenturarte eta sekulako sorpresa izan zen. Gero konturatu nintzen jarraipen handia egiten ari zitzaizkidala (Miren Josune). Astebete lehenago kotxeak segika nituela ohartu nintzen, baina atxiloketaren astean bertan ez. Hemen zebiltzala argi dago (Igor).

Nola bizi zenituzten egun haiek?

Astelehenean atxilotu eta ostiralean inkomunikazioa altxatu zidaten, deklarazioaren ondoren. Trapu bat bezala sentitzen nintzen: etengabe itaunketak jasaten nituen, burua nahasten zidaten... beldurtuta zaude, ez baituzu inongo defentsarik. Oso egun txarrak izan ziren. Kartzelan ere gaizki zaude, noski, baina laguntzen zaituen hemengo jendea dago, hitz egiten duzu... (Igor). Gure etxera gauerdian etorri ziren eta goizeko hiruetan esan ziguten lege antiterroristapean geundela (Asier). Badakizu tortura esistitzen dela eta inkomunikatuta ematen dituzun egun horietan etengabe torturak noiz helduko zain zaude (Miren Josune).

Igor, zer espero zenuen kartzelan emandako egunetan?

Ezin duzu hiru astetan kanpoan egongo zarela pentsatu, gero lur jotzea gerta baitaiteke. Abokatuak eta presoek, kartzelan bi hilabete gutxienez eman beharko nituela buruan sartzeko esaten zidaten. Jende asko horrela sartu da eta gero ateratzea kosta egiten da. Zorte handia izan dut (Igor). Presoaldi prebentiboan urteak eman ondoren, kargurik gabe atera den jendea badago (Asier). Kartzelan gainontzeko presoekin ondo moldatu nintzen, baina funtzionariekin oso gaizki. Amak telegrama piloa bidali zidatela esan zidan, baina ez zitzaidan batere heldu (Igor).

Etxekoentzat zuretzako baino gogorragoa izango zen beharbada...

Ez dut sekula ahaztuko Audientzia Nazionalean, abokatuak gartzelara joango nintzela eta ama eta aita zetozela esan zidaneko momentua. Ama telebistan entzuten ari zenaz txundituta zegoen eta ni berdin gelditu nintzen. Urretxun eta Zumarragan ere orain konturatu da jende asko zer nolako muntaiak egiten diren (Igor). Herri askotan gertatu dira honelakoak eta ez gara azkenak izango (Miren Josune).

Zein egoeratan gelditu zarete?

Hamabostean behin epaitegira joan behar dugu sinatzera. Bestalde, ezin gara estatu espainiarretik atera. Emozionalki, ez dugu sekula ahaztuko komisaldegian pasa ditugunak eta komunikabideek egin diguten kaltea. Bestalde, jendearen elkartasuna ere ez dugu sekula ahaztuko.

Zer balorazio egiten duzue atxiloketen ondoren gertatu ziren guztietaz?

Herriko jendearekin oso gustura daude, ez baitzuen komunikabideek esaten zutena sinistu eta mobilizatu egin baitzen. Baina, Zumarragako Udaleko zinegotziekin oso minduta gaude, ez baitzuten ezer egin gure alde eta ez dakigu zergatik (Asier). PNV eta EAko jende askok elkartasuna adierazi zien gurasoei eta baita niri ere gartzelatik atera ondorengo egunetan. Hau oso pozgarria da, baina agintariek egin zutena lege antiterroristari babesa ematea da (Igor). Salaketarik gogorrena Josu Jon Imazi egin behar diogu, bere deklarazioak lotsagarriak izan baitziren. Kalera atera ginenean, esandakoa zuzendu ez izana ez dugu ulertzen. Bestalde, Zumarragako Udalak bazekien muntaia bat zela eta ez dugu ulertzen zergatik gorrotatzen gaituzten hainbeste. PNVko eta EAko herritarrei, gainontzekoei bezala, bihotzez eskertu nahi diegu adierazitako elkartasuna eta euren besarkadak ez ditugu ahaztuko (Miren Josune).

Zer ondorio ekar ditzake honek guztiak?

Ulertezina egiten zaigu Zumarragan gertatzen ari dena. Egun horietan gertatutako guztiak berriz ere pasa ez daitezen ahalegindu behar dugu. Ez dakit nork gure artean sortu nahi duen gatazka hau moztu beharra dugu. Herri honetan ez dugu sekula halako tentsiorik izan. Urretxuko Udalari egin zuena eskertzen diogu eta bide horretatik jarraitu beharra dago Euskal Herrian bakea lortzeko (Miren Josune). Zumarragako zinegotziek ez digute inongo azalpenik eman eta, bapatean, Usua Buscaren dimisioaren ondorengo muntaiarekin topo egin dugu. Usuak berak, komunikabideek esandako asko gezurra direla azaldu du eta Udalak, ordea, ez du ezer esan (Asier). Josu Jon Imazek Diario Vascon idatzi zuen gutuna lotsagarria da eta Zumarragan sortu den gatazkaren partaide garrantzitsua dela uste dut. Beharbada, osoko bilkuran gurekin egindako hankasartzea estali nahi izan dute. Usuak egin duen azalpena irakurri ondoren, nire ustez Zumarragan hau guztia atera duen esku beltz bat dago. Egia da osoko bilkuran arraultzak bota zirela, baina Usuaren aurka zehazki ez da ezer egin (Miren Josune).

Igor Urrestarazu: "Ez dut sekula ahaztuko, abokatuak gartzelara joango nintzela eta ama eta aita zetozela esan zidaneko unea"

RENEDO argazkiak
Jaunartzeak ● Bataioak ● Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎725682 ☎722292

MAPFRE
Aseguru etxea
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ETXABURU
merenda-lekua

Santa Barbara bidea ☎ 943 72 22 77
URRETXU

Iñaki Sasieta, milurte

Urretxuko Agerre baserriko Iñaki Sasietak, Goierrin nekazaritzaren eta abeltzantzaren alde lan egiten duen Goimen elkartearen "Baserri Eredugarri Saria" jaso zuen abendu bukaeran. Sari hau, baserriko ustiakuntza tradizionalari eutsi eta honi gestio tekniko-ekonomiko eguneratua erantsi diolako jaso zuen. Guztiok dakizuen bezala, Iñaki, ohitura zaharrari eutsiz, egunero baserriko esnea banatzen ibiltzen da gure bi herriotako dendetan eta etxeetan.

Garai batean, baserritar gehienek herriko etxeetan esnea saltzen zuten. Egun, berriz, oso baserritar gutxi ibiltzen dira esnesaltzaile lanean. Urretxun eta Zumarragan, Sasieta familia da ohitura honi eutsi dion familietako bat. Iñakik esan digunez, "nik aitona eta aita ikusi ditut lan honetan. Aitonaren garaian, lana oso ezberdina zen: dena eskuz egiten zen eta baserritik kalera jaisteko biderik ere ez zegoenez, astoan eramaten zituzten marmitak. Duela 40 urte inguru, aitonak eta aitak atxurrarekin bidea egin zuten eta, ondoren, kotxea erosi zuten".

Iñaki koxkortu zenerako, behiak jezteko makina ere bazuten Agerre baserrian. "Aita ezkondu zenean, ama baserrira etorri zen bizitzera eta bera hasi zen esnearen banaketaz arduratzen. Goizeko 8etan irteten ginen etxetik eta hiru anaiok amari esnea banatzen laguntzen genion, ikastolara sartzeko ordua heldu arte. Anai zaharrenak karneta atera zuenean, amari jubilazioa eman genion eta bera hasi zen esne banaketaz arduratzen. Soldaduskatik etorri nintzenean, berriz, anaia Biona aroztegian lanean hasi zen eta, ni hasi nintzen esnea banatzeaz arduratzen".

Iñakik, aitonak, aitak eta anaiak bezala, lanbide zaharra garai berrietara moldatzen jarraitu zuen. "Ordurako esnea hozteko makina bagenuen, ordurarte esnea uretan hozten baikenuen. Hurrengo pausua, 1991n, esnea plastikozko poltsatan sartzea izan zen. Honek, erosleari segurtasun bermea ematen dio eta, gainera, dendetan salgai jartzeko aukera ematen digu. Izan ere, egun, ez dute marmitako esnea dendetan saltzen uzten".

Honenbestez, Agerren prozesu guztia mekanikoki egiten dute: belarra traktorez ebaki eta biltzen dute, behiak makinaz jezten dituzte, makina batean esnea hozten dute eta, azkenik, poltsatan sartzen dute. Behi esne arruntaz gain, gaingabetua eta ardi esnea ere saltzen dute bi herriotako denda, jatetxe eta etxe askotan.

Aldaketa hauek guztiak, beharrezkoak eta oso onuragarriak izan dira Iñakiren ustez. "Irudi aldetik, ez da berdina marmita batean saltzea edo poltsatan saltzea. Bestalde, aurrera egin nahi badugu garai berrietara egokitu beharra dugu. Dendak eta jatetxeak oso bezero garrantzitsuak dira eta, hauei saltzen jarraitu ahal izateko, errejistroa eskatu eta poltsatan saldu beharra dago. Saiatuko bagina, Urretxu eta Zumarragatik kanpo saltzea ere lortuko genuke, baina hemengoarekin bizitzeko adina badugu".

Iñakiren aitonak astoan jaisten zituen marmitak herrira. Orain, Iñakik, esnea poltsatan ontziratuta saltzen du

Izan ere, berrikuntza hauen guztien beste helburua bizitza kalitatea hobetzea izan da. "Garai batean, egun guztia lanean ematen genuen. Orain, honi guztiari esker, iluntzeko 8etatik aurrera atseden hartu dezakegu eta udan oporrak hartzeko aukera dugu. Izan ere, ez da familia osoa behar lan hau egiteko".

Agerren 25 buru dituzte, hauetako 5 bigantxak. "Azkenaldian, 17 behi jezten ari dira egunero. Beste hiruak umea egiteko daude eta azkeneko bi hilabetetan atseden ematen diegu. Zekorrak gaztetan saltzen ditugu. Zekorrak erosten dituztenek gizentzeko nahi dituztenez, gure behiak esnea emateko aproposak dira eta zezena, berriz, haragitarako aproposa. Esnetarako

berriko esnesaltzailea

behi bat nahi dugunean, albaitariari deitu eta honek behi bat inseminatzen digu".

Behi hauek ematen duten esne gehiena eurek saltzen dute eta sobratzen dena bi egunetik behin zentraletik joaten zaien kamioiak eramaten du. "Guri ahalik eta gehiena zuzenean saltzea komeni zaigu, zentralekoek gutxiago ordaintzen baitigute. Baina zentralak ere mesede handia egiten digu, egunero ez baitugu produkzio berdina. Bestalde, udan behiek esnea berdin ematen dute, baina bezeroak oporretan daude".


Iñakik, baserrian bertan, esnea poltsatan sartzeko makina du.

Iñakik ez du produkzioa hazteko edo esnekiak egiten hasteko asmorik. "Behi gehiago izateko lekua badut, baina ez dut behi gehiago nahi. Batzuk 200 behi inguru dituzte, baina ez dago hauek guztiek ematen duten lana imajinatzerik. Bestalde, gazta edo jogurtak egitea ez litzateke zaila izango, saltzea izango litzateke zailagoa. Izan ere, esnearen merkatuan ez dugu konpetentzia handirik, baina gaztaren edo jogurten merkatuan, sekulako konpetentzia dute".

> "Esnea pasteurizatzeko, makina erostekotan naiz. Honela, tabernetan ere baserriko esnea eskaintzeko aukera izango dute"

Baina, esnearen merkatuan ere ez dago lo hartzerik. Agerren argi erakutsi dute merkatuaren beharretara azkar eta ondo egokitzen direla. Orain ere, Iñakik badu berrikuntzarik buruan: "Baserriko esnea gordina denez, etxean egosi beharra dago. Zenbait tokitan gehiago salduko nuke jada egosita, pasteurizatuta, eramango banu. Horretarako, makina erosi beharko nuke, baina esnea zuzenean hartzeko moduan saltzeak merkatua zabalduko lidake. Tabernetan saltzeko aukera izango nuke, adibidez. Ziur eurek ere alde ederra nabarituko luketela".

Garaian-garaiko beharretara egokitu izanak, aurrera egiteko aukera eskaini die Sasietatarrei, baina Iñakik ez du batere argi ikusten baserriaren etorkizuna. "Guk erabat asmatu dugu eta baserritik bizimodua ateratzeko behar ziren pausuak eman ditugu. Baina Urretxu-Zumarragan 20.000 lagun gara eta merkatua badugu. Beste askok ez dute halako merkaturik baserritik gertu eta produkzio handitan sartzen dira. Dena den, baserrian lan egiten duen geroz eta gazte gutxiago dago eta salneurriak parregarriak dira. Ganadua zein preziotan saltzen den ikustea besterik ez dago".

Iñakiren ustez, gobernuek ez dute asmatu. "Salmenta zuzenean eta produkzio naturalean oinarritutako gure eredua mantentzen lagundu beharrean, ekoizpen handiak lortzera joan dira. Baina hemen honek ez du arrakasta handirik izan. Izan ere, eredu horretan salneurriak oso bajuak dira eta soldata on bat lortzeko oso produkzio eta inbertsio handiak behar dira. Horrez gain, baserria oso lotua da. Hori dela eta, jendeak nahiago du fabrikan 8 ordu sartu eta kitto. Dena den, gu ordutegi bat izaten saiatzen gara, igandetan gutxienekoa egiten dugu eta oporrak harten ditugu. Bestela, ez du merezi".

OTSAILEKO AGENDA

8, ostirala
-Arratsaldean, eskola umeek herriko kaleak girotuko dituzte euren mozorro koloretsuekin.
-Joselu Anaiak taldearekin inauterietako dantzaldia. Arratsaldeko 5etatik 9ak arte Kalebarren-Areizaga plazan.

9, larunbata
-Goizean, Lurra Dantza Taldeak "Mundakako Inauteria" antzeztu eta dantzatuko du Urretxuko baserrietan.
-12etan, "Iparragirre Balerdi" musika tailerraren kalejira Urretxuko kaleetan.

10, igandea
-Ostadar Mendi Taldearen irteera Nafarroa Garaira. Bakaikoa-San Adrian ermita-Lizarraga mendatea-BERIAIN (San Donato ermita 1.493 m)-Arakil-Huarte pasabidea-Arakil-Huarte.
-Zumarragako Musika Bandaren kontzertua, eguerdiko 1etan Zelai-Arizti aretoan.

11, astelehena
-Arratsaldeko 4etan, "Mairi" elkartearen lokalean, eskulanak bazkideen artean.

13, asteazkena
-17:30etan, Harizki eskulan taldeak antolatu duen altzariak birziklatzeko ikastaroa hasiko da Kultur Etxean.

18, astelehena
-16:00etan, "Mairi" elkartearen lokalean, eskulanak bazkideen artean.

20, asteazkena
-16:00etan, Kultur Etxean, "Mairi"k antolatutako hitzaldia.

24, igandea
Goierri K.E.ren mendi irteera: Azkaine-Sara-Larrun (898 m.)-Bera.

25, astelehena
-16:00etan, "Mairi" elkartearen lokalean, eskulanak bazkideen artean.

26, asteartea
16:00etan, Urretxuko Kiroldegian, "Mairi"k antolatutako Tai-ji ikastaroa.

27, asteazkena
16:00etan, Urretxuko Kiroldegian, "Mairi"k antolatutako Tai-ji ikastaroa.

28, osteguna
16:00etan, Urretxuko Kiroldegian, "Mairi"k antolatutako Tai-ji ikastaroa.

MARTXOAK 3
-Takolo, Pirritx eta Porrotx Urretxuko Ederrena Pilotalekuan. Sarrerak aldez aurretik izango dituzue salgai, Urretxuko Kultur Etxean eta Zumarragako Udaletxean.

Erakusketak:

-Iganderarte, Santa Lutzitako Argazki Rallyan ateratako argazkien erakusketa Juan de Lizarazu aretoan. Ordutegia: lanegunetan, 17:30etatik 20:30etara eta igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etatik 20:30etara.

-Otsailaren 15etik 24ra arte, Zumarragako Javier Merinoren pintura erakusketa Itarte Etxean. Ordutegia : astelehenetik ostiralera 18:30etatik 21:00etara eta larunbat, igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etatik 21:00etara.

FAMILIA BABES ASEGURUA, honako guztiak barne:
-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.
-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEGURUA.
-ISTRIPU ASEGURUAK.
-BIDAIA LAGUNTZA.
Labeaga, 16 URRETXU
☎ 943 72 93 69
La Previsora Bilbaina, S.A.
Aseguru etxea
GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa

Ainara, ez al duzu Madrilera ikastera joateko asmorik? Luis Figo bakarrik sentitzen omen da Madril aldean... **Zorionak!**

Aintzane, Aznar TVEn baino gehiagotan azaltzen zara zu Otamotzen! Zu al zara On Joxe Mariren ordezkoa? **Zorionak!**

Aitorrek inauterietan egunero mozorrotzeko asmoa duela dirudi! **Zorionak** Pantani eta argi ibili txapelgorridun "banpiroekin".

Alazne, alaitu ezazu aurpegia pittin bat neska, hori ez da inauterietako izpiritua eta! **Zorionak** eta ondo ibili!

Alberto, beti aurpegi berdinarekin azaltzen haiz motel... Ea katekistak behingoz komunera joaten uzten dizun! **Zorionak!**

Amaia, hori da hori irrifarrea! Inauterietako mozorroa aurkitu al duzu jada? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Ander, lokartzen ari al zara? Burukoa eta guzti joan beharko zara eskolara... **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Ander, mozorrorik ez baduzu, etxean dudan Heidiren mozorroa utziko dizut. Aurpegia margotu beharrik ez duzu behintzat!

Ane, argazkian ateratzeak lotsa ematen al dizu? Ez zaitez lotsatu neska... **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Angeli, oraingoan ere berriketan? Egintzan lo eta jango dun mehe! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Cristina, familia guztia elkarrekin nonbaitera joaten zaretenean autobusa alokatzen al duzue? **Zorionak** eta ondo pasa!

Delia, Karibe aldekoa al zara? Zure izena eta atzealdean duzun paisaia ikusita ez litzateke harritzekoa... **Zorionak!**

Edurne, zu bai neska txintxoa! Katekistaren ikasleri kuttunena izango zara... **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.

Misiolariak topatzeko duen erreztasuna ikusita, Bushek gure **Gener**ala fitxatu beharko luke Bin Laden aurkitzeko! **Zorionak!**

Gixane, alaitu ezazu aurpegia, inauterietan gaude eta! Aurpegi horrekin ateratzen bazara lagunak etxera bidaliko dituzu.

Hau bai mutiko alaia eta bizia. **Zorionak Iker**, eta ea koxkortzen zarenean ere umoreari eusteko motiburik duzun!

Honena bai abilezia potrojorran egoten! **Zorionak Iñaki** eta ea noiz harrapatzen zaitugun lanean. Ondo pasa urtebetetze eguna.

Iñigo, ez al haiz gazte samarra ezkontzeko? Nora hoa gorbata eta guzti? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.

Iñigo, Realak partidu bat irabazi duela eta, jada UEFAZ hitz egiten hasten diren horietakoa al zara? **Zorionak** eta ondo ibili.

Jaione, dirudienez katekesiko klaseak astun samarrak iruditzen zaizkizu... Disimula ezazu pixka bat sikira! **Zorionak!**

Jon, inauterietan kalera ateratzeko mozorrorik lortu ez duzulako kezkaturik al zaude? Lasai, erosi Bin Ladenen mozorroa, eta kitto!

Jose Mari, aurten semearen ondoan jarri zaitugu pixka bat zaindu dezazun. Kostako zaizu bide onetik eramatea! **Zorionak!**

Josu, Santa Isabeletan patxaran gehiegi edan al zenuen eta txistuak enbarazu egiten al zizun? **Zorionak!**

Julen, kezkatuta ikusten zaitugu... Lasai, motel, utzi penak alde batera eta zoaz Tolosara parranda egitera! **Zorionak!**

Julian, eskerrak egun jada ez duten "Barrio Sesamo" telebistan botatzen, bestela, lagunek ederki joko lizukete adarra!

Julio, hik ere "Me va, me va..." kantatzen al duk? Burutik Julio Iglesias baino hobeto egongo haiz behintzat! **Zorionak!**

Haurrak eramateko karrotxorik ez baduzue, mototxarekin heldulekua egin eta haurra poltsa balitz bezala eraman. **Zorionak Libe!**

Lide, hori da hori musugorria duzuna! Korrika batean etorri al zara argazkia ateratzera? **Zorionak** eta ondo ibili!

Luis, lur jota ikusten zaitugu... Realaren eta Urolaren sailkapena ikusita ez da harritzekoa! **Zorionak!**

Maialen, Bushek Bin Laden aurkituko balu, ez luke horrelako parre algararik botako! **Zorionak** eta segi horren umoretsu!

Maitane, ohetik oraintxe altxatu zarela dirudi! Ea hurrengoan pixka bat orrazten zaren argazkia atera aurretik! **Zorionak!**

Marta, burua pixka bat gehiago hazten bazaizu datorren urtean ezingo zaitugu zoriondu! **Zorionak** eta ondo ibili!

Hona hemen Urretxu-Zumarragako Pili eta Mili. Ziur hauek ere eguna bihurrikeriak egiten emango dutela. Badaezpada ere ez diegu soberan adarra joko... Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna, **Maitane eta Onhintze.**

Mikel, ez al diguzu irrifarre txiki bat eskaini behar? Lasai, bihar ere egunak argituko du eta! **Zorionak** eta ondo pasa!

Mikel, zure txintxo aurpegia ikusita, ziur barrabaskeriaren bat ezkutatzen ari zarela. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Nekane, argazkian dirudizun bezain txintxoa al zara? Ez dakit ba gurasoak iritzi berdinekoak izango diren... **Zorionak!**

Ruben, komisaldegian atera al zizuten argazki hau? Zer demontre erakusten dizuete parrokiko aisialdi taldean?

Salo, Kakuetan denontzat pastelik ez duzuenean, zu arduratzen al zara pastelak zatitzeaz? **Zorionak** eta ondo ibili!

Sebas, argazkian bai txintxo! Euskaltegiko ikasleak ere iritzi berdinekoak al dira? Zorionak eta ondo ibili!

Sole, Maialenek etxetik alde egin al du? Bere argazkia bakarrik falta zaigu eta kezkatuta gaude... **Zorionak** eta ondo ibili!

Pa**Txaro**sa, pa**Txaro**sa ikusten zaitugu... ez dirudizu ez, berehala urduri jartzen diren horietakoa! **Zorionak!**

Uxue, zorionak, ondo pasa inauterietan eta zure urtebetetze egunean eta segi orainarte bezain irrifartsu!

Xabi, lausotuta ikusten zaitugu, baina zin egiten dugu atzo ez genuela parrandarik egin! **Zorionak** eta ondo pasa!

Goierri Kirol Elkartearen 50. urteurrena

1969-70: Ayuso, Holgado, Leatxe, Arriaran, Areizaga, Cruz, Heras, Garcia, Melchor, Goiri eta Galartza.

Urretxuko kirol elkarte esanguratsuenak, Goierri Kirol Elkarteak, 50 urte beteko ditu 2002 urte honetan. Urte horietan guztietan, Urretxu eta Zumarragako ehundaka gazte pasa dira Goierriren sail ezberdinetako taldeetatik. Izan ere, Goierri Kirol Elkarteak kirol askotan lan egin du 1952az geroztik, eta gazte askori kirol ezberdinetan aritzeko aukera eman die. Elkartearen nondik norakoen berri izateko eta urteurrena nola ospatu behar duten jakiteko, Goierriko presidentearekin eta presidente ordearekin izan gara: Javier Garcia de Andoinekin eta Juan Luis Ayusorekin. Juan Luis, gainera, urteurreneko ekitaldien antolaketa koordinatzeaz arduratuko da.

Javierrek eta Juan Luisek esan digutenez, Goierri elkartea 1952ko ekainaren 22an sortu zen, "Galeperraren egoitza Urretxutik Zumarragara eraman zutenean. Goierriren lehenengo egoitza, ondoren Gazteleku egon zen tokian zegoen. Ikusi ditugun agirien arabera, elkarte berriaren sorrerak arrakasta itzela izan zuen, sortu eta berehala 500 bazkide inguru baitzituen".

Goierrik, hasieratik, sail ezberdinak izan ditu. "Ehiza, arrantza, pilota, mendi, futbol eta txirrindularitza sailekin sortu zen elkartea. Ondoren, atletismo saila ere izan zuen, baina hau desagertu egin zen. Beranduago, saskibaloi eta eskubaloi sailak sortu ziren. Eskubaloi saila pixkanaka indarra galtzen joan zen eta, azkenean, nesken talde batekin hasi zen Urolaren eskubaloi sailak bere gain hartu zuen".

Goierriren helburua herriko gazteei kirola egiteko aukera eskaintzea da. Hori dela eta, gazte talde batek Goierrikoei sail berri bat sortzeko proposamena luzatu dien bakoitzean, laguntzen saiatu dira. "Gure lana herrian kirolaren alde egitea denez, edozein proposamen ongietorria da. Dirulaguntzak lortzeko elkarte batekoa izan beharra dago eta guk babes hori eskaintzen dugu. Egun, Goierrin bederatzi sail ditugu: saskibaloia, ehiza, txirrindularitza, zikloturismoa, areto futbola, mendia, pilota, arrantza eta xakea. Azken hau da, hain zuzen ere, berriena. Biztanleko federatu gehien dituen Gipuzkoako elkartea gara".

Nagusiki kirol elkartea den arren, garai batean kirola eta kultura uztartzen zituzten ekitaldiak ere antolatzen zituen Goierri Kirol Elkarteak. "Urte askotan Hamabostaldi Kulturala antolatu genuen. Bertan, kirolari buruzko hitzaldiak antolatzen genituen. Iribar, Arkonada... hitzaldi hauetan izan ziren".

Kirol taldeak bultzatzeaz gain, Goierrik hainbat kirol lehiaketa ere antolatu ditu urte hauetan guztietan. Horien guztien artean, Goierriko Txirrindulari Itzulia da kirol ekitaldirik kuttunena. Izan ere, lasterketa hau afizionatu mailako garrantzitsuenetakoa da eta, bertan, egun profesionalak diren txirrindulari askok parte hartu dute. "Duela hiru urte, lau lagunon artean, antolaketa modernizatzea erabaki genuen eta lortu dugula uste dugu. Txirrindulari taldeek oso antolaketa ona dugula esan digute. Aurtengo itzuliaren antolaketa sekula baino lehenago hasi nahi dugu, urteurrena dela eta, ahalik eta talderik onenak ekartzeko asmoa baitugu".

Bestalde, Goierritik atera diren goi mailako kirolariez ere oso harro daude. "Ruben Gonzalez, "Montxi", Zilarrezko Mailan dagoen Ibarrako Patxaran Olatz areto futbol taldean jokatzen ari da. Bestalde, Goierriren areto futbol saileko jokalari asko Euskadiko selekzioarekin jokatzen ari dira. Luis Mari Heras, Amelio Mendijur, Jose Mari Yurrebaso... ere Goierrin arituak dira".

Berrogeita hamar urte hauetan gauza asko aldatu dira herri mailako kiro-

lean eta Goierrin. Egun, kirola egiteko toki aproposak daude (futbol zelaiak, kiroldegiak...), baina garai batean ez zen horrela. "Elkartea sortu zenean, Elizalde futbol zelaia oraindik egin gabe zegoen. Urte haietan handik gertu zegoen beste zelai batean jokatzen zen. 60ko hamarkadan Elizalde egin zen, 80 hamarkada erdialdean kiroldegia...".

Goierriren egoitza ere, ez da garai batekoa. "Gazteleku izan aurretik, huraxe zen Goierriren egoitza. 1976an hona etorri ginen, eraikin hura egoera txarrean zegoela eta bota egin behar baitzen..., azkenean 1998an bota zen!". Juan Luisen eta Javierren ustez, egoitza oso kontuan hartu beharreko gauza da. "Hau gure etxea da eta egoitzarik gabe ez dugu non lan egin. Tabernan lortzen dugun dirua guztiz beharrezkoa dugu egoitza zaintzeko, udalen dirulaguntza kirol jardueretarako baita. Aurten obra egin behar dugu eta urteurren ospakizunak hasi aurretik lanak amaituta egotea espero dugu".

50 urteko ibilbidea betetzea, eginezkoa litzateke bazkideen laguntzarik gabe. "Egun, berriz, Goierriko sail ezberdinetako kirolariak eta dirulaguntza ematen dutenak dira bazkide. Azken hauek, euren dirulaguntzaz kirola bultzatzen dute eta egoitzako zerbitzuak erabili ditzakete".

Goierri, emakumeei bazkide izaten utzi zien herriko lehen elkartea izan zen, Javierrek eta Juan Luisek esan digutenez. "Esan bezala, gure taldeetan aritzen diren kirolariak zuzenean bazkide bihurtzen dira eta elkartean sartzeko eskubidea dute. Hori dela eta, emakumezkoen lehen taldea sortu genuenean, hauek bazkide egin genituen. Ondorioz, gainontzeko emakumeei ere bazkide egiteko aukera eman genien".

Zikloturismo sailaren lehenengo taldea (1978).

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

DOS S
ZUMARRAGA
Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Marian eta Joxe,
euskaraz jo ta ke!
Zorionak!

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak
Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA

Goierriko bazkideek Bermejo, Okariz eta Plazaola pelotazaleei egin zieten omenaldian ateratako argazkia (1981).

Izan ere, Goierri hasiera-hasieratik, kirol elkartea izateaz gain, elkarte gastronomikoa ere bada. "Betidanik taberna zerbitzua eskaini dugu eta sukaldea ere izan dugu. Sukaldea kirol taldetako jende gutxik erabiltzen du eta kuota ordaintzen duten bazkide askok ere ez dute erabiltzen. Herriko lagun asko, kirolaren alde dirulaguntza emateko soilik dira bazkideak. Honen erakuslea honakoa da: herriko elkarte guztietan dago, aldiberean, Goierri elkartekoa ere baden bazkideren bat".

Egun, kirolariak ez diren 537 bazkide ditu elkarteak. "Aurten kuota igotzea erabaki dugu, elkarteko gastuak izugarri igo baitira azken urteetan. Dena den, oraindik ere, Goierriko bazkideek ordaintzen duten kuota herriko baxuenetakoa izango da. Bazkideen dirulaguntza oso garrantzitsua den arren, ez da elkartea aurrera ateratzeko nahikoa".

Hori horrela, Urretxu eta Zumarragako udalen dirulaguntza ezinbestekoa dute. "Urretxuko Udalak, urte askotan, dirulaguntza bakarra ematen zigun. Gero, guk sail ezberdinen artean banatzen genuen. Egun, Urretxuko eta Zumarragako udalek sail bakoitzari bere beharren araberako dirulaguntza ematen diote. Zumarragakoak, bertako elkarteetan ez dauden kiroletarako soilik ematen digu, noski. Areto futbola, txirrindularitza eta saskibaloia dira kirolari gehien dituzten sailak eta, ondorioz, dirulaguntza handiena behar dutenak".

Herriko lagun asko, kirolaren alde dirulaguntza emateko soilik dira Goierriko bazkideak

Javierren ustez, bi udalekin sinatutako hitzarmena oso garrantzitsua da. Izan ere, "urte gutxitan sail batzuen aurrekontua izugarri igo da. Saskibaloian, txirrindularitzan... geroz eta talde gehiago ditugu eta hitzarmenak ekarri zuen dirulaguntzaren igoera oso garrantzitsua izan da talde hauek guztiak aurrera atera ahal izateko. Dena den, patrozinatzaileen laguntza ere beharrezkoa da".

Diruaz gain, lana erruz egitea ere ezinbestekoa da honelako elkarte bat aurrera ateratzeko. Javierrek, Juan Luisek eta beste askok urte piloa daramatzate Goierri elkartearen alde lanean. Javier, esaterako, bere alabaren eskutik sartu zen elkartean. "Alaba areto futbolean jolasten hasi zen eta laguntzeko eskatu zidaten. Honela, bazkide egin nintzen eta lan ezberdinetan aritu naiz: hasieran nesken taldea entrenatu nuen, gero mutilena eta, egun, jubenil mailako taldea entrenatzen eta presidente lanean ari naiz. Bestalde, nik ere, elkarteak bezala, aurten 50 urte egin behar ditudala esan beharra dut".

Juan Luis Ayuso, berriz, oso gaztetatik dabil Goierrin. "Zortzi urterekin "kanpitora" joaten nintzen jada parti-

50. urteurrenaren ospakizun ekitaldiak ekainean izango dira

Goierrikoek lau hilabete daramatzate jada urteurrena ospatzeko ekitaldiak prestatzen. Ospakizun ekitaldi nagusiak ekainean izango dira. Hasteko, Aste Kulturala antolatzeko asmoa dute. Bertan, hitzaldi batzuk izango dira eta hauetan kirolari ospetsuek parte hartuko dute. Bestalde, Lehiaketa Gastronomiko bat ere antolatuko dute ekainean. Hau elkartearen egoitza azpiko plazatxoan izango da eta bertan, Urretxuko elkarteek eta Galeperrak hartuko dute parte.

Ekainaren 22an, Goierriko sail guztietako kirolariek erakustaldiak egingo dituzte Gernikako Arbola Plazan. Horrela, herriko jendeak Goierriko sailen berri izango du. Gainera, herriko haurrek sail ezberdinetako kirolariekin aritzeko aukera izango dute.

Hurrengo egunean, ekainaren 23an, meza izango da eta, ondoren, bazkaria. Bazkarira Urretxuko gainontzeko elkarteetako lehendakariak eta Galeperrakoa gonbidatuko dituzte. Nahi duen orok bazkarira joateko aukera izango du.

Goierrikoek, talde handien moduan, urteurreneko logotipoa prestatu dute eta aurten erabiliko dituzten paper guztietan logotipo hau joango da. Urte hauetako guztietako argazkiak ere biltzen ari dira eta hauekin bi gauza egin behar dituzte: batetik, aldizkari bat kaleratu behar dute eta, bestetik, argazkiekin eta garaikurrekin erakusketa bat antolatu nahi dute. Hori dela eta, deialdia luzatu nahi diete elkartearekin zerikusia duten argazkiak dituztenei elkartera eraman ditzaten.

duak ikustera. 14 urte nituela, zelaiko marrak markatzeko, baloien bila joateko... esaten zidaten eta nik oso gustura egiten nuen. Garai hartan sekulako ohorea zen Goierriko bazkide izatea eta 17 urterekin jaiotze data faltsifikatu nuen bazkide egin ahal izateko. Bestalde, epaile lanetan, Goierrik antolatzen zituen partiduetan hasi nintzen. Urte hauetan guztietan, delegatua, lehendakariordea, lehendakaria... izan naiz. Garai batean, bai Goierrikoek eta bai Urolakoek, asko lagundu zidaten eta, orain, ni naiz gazteei laguntzen saiatzen ari naizena".

Lizar-Iturriren berrinaugurazioa (1961-62).

Javierrek eta Juan Luisek diotenez, "horrelako elkarte bat aurrera ateratzea jendeak uste duena baino zailagoa da. Izan ere, udalen dirulaguntza jasotzeko, dirulaguntza honen beharra justifikatu behar duzu. Elkarteko dirukontuak, urteko memoria... oso zorrotz eta zuzen eraman behar dira. Elkartea zuzentzeko denbora asko behar da". Lan hori guztia gustura egiteko lantalde egokia izatea ezinbestekoa da. "Edozein gauza antolatzeko garrantzitsuena kideen artean giro ona egotea da".

Aurten bukatzen da egungo zuzendaritza batzordearen mandatua, baina Javier jarraitzeko prest dago. "Onena jende gazteak zuzendaritza hartzea litzateke, baina inor aurkezten ez bada jarraitzeko prest nago eta Juan Luis konbentzitzen saiatuko naiz". Izan ere, Goierrik ia banaezinak bihurtu ditu Javier eta Juan Luis. "Elkartean ezagutu ginen eta elkarteari esker gara lagunak. Orain denbora asko ematen dugu elkarrekin eta jende askok "hor doaz Zipi eta Zape" esaten du".

OTAMOTZ ALDIZKARIARI ZEURE BULTZADATXOA

Gogoratuko duzuen bezela, azkenaldi honetan urtero proposatzen dizuegu OTAMOTZ aldizkariarako **borondatezko harpidetza (suskripzioa)** egiteko aukera Zintzo-Mintzoko **bazkide ez zaretenoi**; aldizkaria etxean jasotzen duen bakoitzak, **nahi izanez gero**, urtean kuota txiki bat ordaintzeko aukera, alegia.

2002. urterako gauza bera proposatu nahi genizueke, izan ere Otamotz kaleratzeak sortarazten dizkigun gastuak estaltzeko guztion laguntza beharko baitugu.

Oraingoan ere zeure esku geratzen da diru-kopurua aukeratzea. Proposamena bidezkoa iruditzen baldin bazaizu, bete ondoko fitxa, eta ekarri Zintzo-Mintzoren egoitzara (Labeaga kalea 12, etxeazpia), edo zuzen-zuzenean egin dirusarrera kontu honetan: **KUTXA: 0010242378.**

BORONDATEZKO HARPIDETZA

Izen-deiturak:
Helbidea: Herria:

Urtean kuota hau ordainduko nuke: -1.000 pta
-1.500 pta
-2.000 pta

Kontu kte. zkia: Kutxa edo bankua:
Herria:



Iñaki Larrañaga

Iñaki eta bere belaunaldikoak San Jose ikastetxean ikasi zuten azkenetakoak izan ziren. Ondoren, Jose Mari Iparragirre institutura joan zen eta, egun, Humanitateak-Enpresa lizentziaturako azken urtea ikasten ari da Eskoriatzan. Iazko udan bi hilabete eta erdi eman zituen Bolivian praktikak egiten. Iñakik dioenez, "oso gustura ibili nintzen eta berriro ere joango nintzateke antzerako bidaia bat egitera".

Azkenaldian, zinezaleak zaretenok behintzat, Iñaki Zelai-Arizti Aretoan ikusiko zenuten txartelak hartzen, ikusleak eserlekuetan kokatzen... "Filmak botatzen dituzten guztietan egiten dut bertan lan eta gustura nabil".

Dena den, Iñaki panderojole gisa da ezaguna batez ere Urretxu-Zumarragan. Oso gaztetan hasi zen panderoa jotzen ikasten, Luis Alberdi "Zabale"rekin. Ez da harritzekoa, etxean trikitizaletasuna oso gertutik bizi baitu. Izan ere, bere aita, Esteban Larrañaga, urte askotan Trikitilari elkarteko lehendakaria izan da eta Arrate Irratian trikitixari buruzko irrati saio bat aurkezten du.

Iñaki, duela gutxira arte, bi herrietako festa ezberdinetan soilik aritzen zen panderoa jotzen, Urretxu eta Zumarragako gainontzeko trikitilari eta panderojoleekin. Baina, duela urtebete inguru, Garirekin elkartu zen, Joxe Oriaren bilobarekin. Biek bikote aparta osatzen dute. Behin trikitixa jotzen hasiz gero, ez dago geldituko dituenik!

-Zer izan nahi zenuen umetan?
Arkitektoa.
-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?
Astean zehar kirola eta asteburutan parranda.
-Bizitzeko toki bat?
Urretxu bera.
-Bolivian ez al zintuzten euretako batekin konfunditzen?
Boliviarrekin ez, baina argentinarrekin bai.
-Gari ala Joseba Tapia?
Gari, noski.
-Gustuko trikiti pieza?
Fandango zaharren bat.
-Noizko filma pornoak Zelai-Arizti aretoan?
Horiek pribatuan ikusten ditugu.
-Zelai-Ariztin xirriak egiten al dira?
Nire aurrean ez, harrapatzen baditut moztu egiten baitiet.
-Zer moduz Armaniren trajea soinean duzula?
Dotoretu egiten nau, baina batere ligatzen ez duenak ezin gehiago.
-Nork ligatzen du gehiago, Garik ala zuk?
Biok antzera samar...
-Bertso hankaluze asko botatzen dituzu, zer dela eta?
Izan ere, asko daukat esateko eta...
-Ilehoriak ala beltzaranak?
Komeni dena.
-Egindako azken oparia?
Poltsa bat.
-Eta jasotakoa?
Jertse bat.
-Data bat?
Ez dut data bat bereziki gogoratzen
-Neska eta mutil izen bana?
Ihintza eta Asier.
-Zein egunkari irakurtzen duzu?
Parean jartzen dena.
-Gustuko telebista saioa?
Bertatik Bertara.
-Bereziki gorroto duzuna?
Supervivientes ez zait batere gustatzen.
-Liburu bat?
Isabel Allenderen "La mujer habitada". "Las venas abiertas de América Latina" ere oso ondo dago, baina ez dut bukatu oraindik.
-Filme bat?
"El indomable Will Hunting" asko gustatu zitzaidan.
-Gustuko abestia?
Dut taldearen "Itxura faltsuak".
-Soinu bat?
Trikitixarena.
-Usain bat?
Harrigarria da, baina gasolinarena txikitatik gustukoa dut.
-Janari bat?
Amak egindako kroketak.
-Ura ala...
Garagardoa.

Ikastolan...

URRETXU ZUMARRAGA IKASTOLA

kilometroak 2002
elkarren beharrean
urretxu-zumarraga

Izena emateko epea. otsailaren 18tik martxoaren 1era

Informazio bilerak: otsailaren 20an, 15:00etan edo 10:00etan, Ikastolan bertan

Tefefonoa: 943 72 0026

ESKOLA PUBLIKOA
etorkizunerako aukera

Matrikulazio epea:
otsailaren 18tik martxoaren 1era

J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: info.gainzuri@educanet.net
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

GAiNZURi Ikastetxea